

## 4. Gaia. Erabiltzaileen kudeaketa eta segurtasuna

### Ariketak

1. *baimen\_berdinak* komandoa programatu behar da, bi fitxategien baimenak berdinak badira 0 bueltatzen duena, eta 1 bestela.

```
baimen_berdinak fitx1 fitx2
```

2. *baimenak\_bilatu* komandoa programatu behar da, sarrera estandarretik patroia bat eta baimen batzuk (zortzitar sisteman adierazita) jasotzen dituena, honakoa eginez: uneko katalogoko eta lehen mailako azpikatalogoko sarreretatik, bere izenean pasatako patroia eta pasatako baimenak edo gehiago dituzten fitxategiak irteera estandarrean idatziko ditu. Idazterakoan fitxategiaren izena (bidea barne) eta baimenak (zortzitar sisteman adierazita) idatzi behar dira. Komandoa bukatzean, baldintzak betetzen dituen fitxategiren bat aurkitu bada 0 bueltatuko du, eta 1 bestela.

```
baimenak_bilatu patroia baimenak
```

3. *exekutagarria\_da* funtzioa programatu behar da, pasatako fitxategia arrunta bada eta bere jabeak exekuzio baimena badu 0 bueltatzen duena, eta 1 bestela.

```
int exekutagarria_da(char *izena);
```

4. *exekutagarria\_da* funtzioa programatu behar da, pasatako fitxategiaren gainean uneko erabiltzaileak exekuzio baimena badu 0 bueltatzen duena, eta 1 bestela.

```
int exekutagarria_da(char *izena);
```

5. *exekutagarrien\_zerrenda* programa inplementatu behar da, irteera estandarrean argumentu bezala pasatako katalogoaren fitxategi exekutagarrien izenak idazten dituena. Aurreko ariketetako *exekutagarria\_da* funtzioak erabil itzazu.

```
exekutagarrien_zerrenda katalogoa
```

6. *baimenak\_aldatu* komandoa programatu behar da, fitxategi bati baimenak aldatzen diona. Baimen berriak zortzitar sisteman pasa behar zaio komandoari (ikusi **chmod** komandoa). Komandoa bukatzean, aldaketa ondo joan bada 0 bueltatuko du, eta 1 bestela.

```
baimenak_aldatu baimen_berriak fitxategia
```

7. *jabea\_aldatu* komandoa programatu behar da, fitxategi baten jabea aldatzen duena pasatako jabe berria esleituz (ikusi **chown** komandoa). Komandoa bukatzean, aldaketa ondo joan bada 0 bueltatuko du, 1 jabe berria ez bada balezkoa eta 2 balezkoa izan arren, aldaketa ez bada posible izan.

```
jabea_aldatu fitxategia jabe_berria
```

8. *erabiltzaile\_zerrenda* komandoa programatu behar da, irteera estandarrean talde baten erabiltzaile guztien izena eta identifikadorea idazten dituen. Komandoa bukatzean, taldea existitzen bada 0 bueltatuko du, eta 1 bestela.

```
erabiltzaile_zerrenda taldea
```

9. *talde\_zerrenda* komandoa programatu behar da, irteera estandarrean erabiltzaile baten talde guztien izena eta identifikadorea idazten dituen (ikusi **id** eta **groups** komandoak). Komandoa bukatzean, erabiltzailea existitzen bada 0 bueltatuko du, eta 1 bestela.

```
talde_zerrenda erabiltzailea
```